

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA (HIRUELEDUNA)

2021-2022 Kurtsoa

Ausarten Kluba: Gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko eredu dialogikoa. Bilboko eskola publiko baten kasu-azterketa.

Egilea: Maite Arrazola Barandiaran

Zuzendaria: Igone Arostegui

Leioan, 2022ko ekainaren 1ean

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Marko teorikoa.....	4
1.2. Gatazken ondorioak	4
1.3. Gatazkak eskolan: jazarpena	5
1.4. Eredu dialogikoa	7
1.5. Ausarten Kluba	9
2. Metodologia	11
3. Lanaren garapena	12
3.2. Ikerketaren helburuak	12
3.3. Ikerketaren diseinua	13
3.4. Lagina eta informazioa biltzeko teknikak.....	14
3.5. Ikerketaren prozedura.....	15
3.6. Datuen analisisa eta emaitzen interpretazioa.....	15
4. Ondorioak	20
5. Etika profesionala eta datuen babesa	22
6. Erreferentziak	23
ERANSKINAK	
1.Eranskina. Elkarrizketa galderak	26
2.Eranskina. Ikerketan parte hartzeko baimena.....	27
3.Eranskina. Dekalogo.....	35

Ausarten Kluba: Gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko eredu dialogikoa. Bilboko eskola publiko baten kasu-azterketa.

Maite Arrazola Barandiaran

UPV/EHU

Indarkeriari aurre egitea gizartearen helburu nagusietako bat da eta komunitate zientifikoaren aburuz honi aurre egiteko gakoa prebentzioa da. Egungo indarkeriaren aurkako programen artean Ausarten Kluba dago; gatazken prebentzio eta kudeaketa modelo dialogikotik bideratzen duen programa. Lan honetan Ausarten Kluba programaren eraginkortasuna eta programa garatzeko jarraitu beharreko oinarrizko pausoak aztertuko dira. Baita programa hau aplikatzeko lanean ari den komunitatearen pertzepzioa ere. Horretarako, Bilboko eskola publiko baten kasu-azterketa egin da metodologia komunikatiboaren bidez. Emaitzen arabera, eredu dialogikoa ezartzea prozesu luze eta konplexua da eta eskola honetako Ausarten Kluba honen hastapenean dago orriandik. Hala ere, lekuko pasibitatea indarkeriaren aurrean hein handi batean zapuztu du eta komunitateko gatazkak gutxitzea lortu du.

Biolentzia, eredu dialogikoa, Ausarten Kluba, prebentzioa, hezkuntza

La lucha contra la violencia es uno de los principales objetivos de la sociedad y la comunidad científica considera que la prevención es la clave para combatirla. Entre los programas actuales contra la violencia se encuentra el Club de los Valientes, un programa que orienta la prevención y gestión de conflictos desde el modelo dialógico. En este trabajo se analizará tanto la eficacia del programa y los pasos básicos a seguir para su desarrollo, como la percepción de la comunidad que está trabajando en su aplicación. Para ello, se ha realizado un estudio de caso de una escuela pública de Bilbao a través de la metodología comunicativa. Según los resultados, la implantación del modelo dialógico es un proceso largo y complejo y el Club de los Valientes de esta escuela está en sus inicios. Sin embargo, han disminuido la pasividad de los testigos ante situaciones de violencia y los conflictos en la comunidad.

Violencia, modelo dialógico, el Club de los Valientes, prevención, educación

The campaign against violence is one of society's main objectives and the scientific community believes that prevention is the key to combating it. Among the current programs is the Brave's Club, a program that focuses on prevention and conflict management from a dialogic perspective. This paper will analyze both the effectiveness of the program and the basic steps to be followed for its development, as well as the perception of the community that is working on its application. For this purpose, a case study of a public school in Bilbao has been carried out through the communicative methodology. According to the results, the implementation of the dialogic model is a long and complex process and the Brave's Club of this school is in its first stages. However, the witnesses passive approach when facing a conflict has diminished as well as the conflicts of the community themselves.

Violence, dialogic model, Brave's Club, prevention, education

Sarrera

Egun gizartean dinamika bortitz ugari aurki daitezke; genero-indarkeria, *bullying*-a, arrazismoa eta abar. Ez da harritzekoa, beraz, indarkeriari aurre egiteko ikerketa eta proiektu garrantzitsu asko egotea nazioartean. Argi dago jazarpenak ikasleen garapen integralean oztopo larria sorrarazten duela, beraz beharrezkoa da “martxan dauden proiektu, programa eta protokoloen jarraipen eta ebaluazioa egitea” (Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea [ISEI], 2016, p.13). Ikerketa hauek dira prebentzioa izendatzen dutenak biolentzia gainditzeko gako gisa. Hala, harreman bortitz hauen sorrera ekiditeko harremanen garapen prozesuan esku hartu behar dela diote adituek, bestela esanda, gazteen sozializazioaren hastapenetan. Hezkuntza mundura gerturatuz gero, eskola-jazarpen kasuak ez dira gutxi. Ikastetxeak gizartearen isla dira eta gizarteko dinamika bortitz askoren erreprodukzioa ematen baita garai honetan.

Esandakoa kontuan hartuta, hezkuntza sistema eta bereziki ikastetxeak dira indarkeriari aurre egiteko programak gauzatzeko testuinguru egokiena. Izan ere, alde batetik maiz harreman bortitz hauen sorrera ikastetxeetan gertatzen da lehenengoz. Bestalde, gizarteko dinamika bortitzen erreprodukzio-zikloa gelditzeko gunerik egokiena da.

Hori dela eta, Bilboko eskola publiko baten kasu-azterketa egin da lan honetan. Ikastetxean, Ausarten Kluba izeneko, indarkeriaren aurkako programa berritzaile bat ezartzen hasi baitira 2021-2022 kurtsuan zehar. Programa honek ikuspegi dialogikoaren bitartez bideratzen du gatazken prebentzio eta kudeaketa. Beraz, Gradu Amaierako Lan honen helburua Ausarten Klubaren eraginkortasuna eta programa garatzeko jarraitu beharreko oinarritzko pausoak aztertzea da. Baita programa hau martxan jarri duen komunitatearen pertzepzio eta bizipenak ezagutaraztea ere. Izan ere, hezkuntza jarduera arrakastatsu honi ikusgaitasuna eman nahi zaio, urrutira joan gabe aurrera pausoak ematen ari baitira gizarte hobe baterantz.

Helburu horrekin, lehenik eta behin, marko teoriko bat aurkezten da. Gero, ikerketaren metodologia zehazten da. Hemen, kasu-azterketaren testuingurua eta parte hartzailek nortzuk diren azaltzen da, baita zein tresna erabili diren ikerketa aurrera eramateko. Azkenik, emaitzen azterketa eta ondorioak azaltzen dira.

1. Marko teorikoa

1.1. Gatazken ondorioak

XX. mende amaieran psikologia pertsonen arteko erlazioetan zentratzen hasi zen eta harreman hauek gizakien osasunean zuten eraginaz ohartu ziren. Alde batetik, adiskidetasuna bezalako kalitatezko harremanek garapen kognitibo eta emozional integral, osasuntsu eta positiboa dakartzala behatu zuten (Racionero, 2018). Bestalde, erlazio bortitzak kalte nabarmenak sorrarazten zituela ikusi zen. Eragin negatibo hau ez zen osasun emozionalera mugatzen, osasun fisikoan, garunaren egituran eta bere jardueran ere eragina baitu. Izan ere, egun sarri entzuten den erlazio *toxikoak*, ez dira ezizen bat, giza garapena larri kaltetzen duen estres toxikoa sortzen baitute. Estres mota honek maila desberdinetan du eragina; mentala, kognitiboa eta fisikoa zehazki.

Osasun mentalari behatuz, estatistiken arabera, Europan jazarpena jasan duten umeen erdia baino gehiagok jasan du depresioa, %35ak bere burua zauritu dute eta %38ak bere buruaz beste egiteko pentsamenduak izan ditu (Dalla Pozza et al., 2016). Honetaz gain, antsietatea, sintoma psikotikoak edota trauma osteko estresa bezalako gaitzak ere izan ditzakete jazarpenaren biktimek (Moore et al., 2017). Bestalde, neurozientziari esker jakina da estres toxiko honek garunaren egitura fisikoa aldatzea ere eragin dezakeela. Izatez, hipokanpoan eta amigdalan neuronen narriadura baitakar (Shonkoff et al., 2012). Ondorioz, memoria, arazoak konpontzeko gaitasuna eta zereginak planifikatzeko gaitasuna kaltetuta aurki daitezke. Fenomeno honek ikasteko zailtasunak sor ditzake, baita goi mailako jarduera kognitiboak betetzeko zailtasunak ere.

Orain arte indarkeria eta harreman bortitzen osasun ondorioak aipatu dira, baina badira beste ondorio ugari alderdi sozialaren barnean. Hasteko, jazarpena jasaten duen ikasleak biktimaren rola barneratzeko arriskua du, hala, etorkizunean gehiegizko botere-harremanetan amaitzeko probabilitatea handituz. Halaber, biktima izatearen eta eskola porrotaren arteko erlazio estu bat dagoela diote adituek (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2015). Bestalde, harreman bortitzen ondorioak erasotzaileek ere pairatzen dituzte, botere-harreman dinamika desagokiak barneratzen baitituzte eta honek helduaroan indarkeria matxista eta tratu txarrak gauzatzea ekar baitetzake (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2015). Jazarpenaren lekuko izan diren

ikasleak, ordea, jarrera pasibo edota adeitsua barneratu dezakete bidegabekeriarekiko eta berdintasun-ezarekiko.

Funtsean, ikasle guztiek indarkerian oinarritutako elkarrekintzak barneratu eta normalizatzea gerta daiteke. Fenomeno honen arriskua zera da, helduaroan dinamika hauek erreproduzitzea. Hala balitz, gizartearen bizikidetzahelburua betetzean porrot egingo zatekeen. Beraz, jazarpenaren ondorioek ikastetxe osoari eta finean gizarteari ere eragiten dietela esan daiteke. Testuinguru honetan, ikastetxe seguruak bermatzea Europako zein nazioarteko helburua da. Izan ere, ikasleen segurtasuna errendimendu akademikoaren hobekuntzarekin lotuta dago eta eskola-jazarpenaren biktima izateak, errendimendu akademiko txikiagoa eragiten du (ISEI, 2016), baita autoestimua, depresioa eta antsietatearen sorreran ere.

1.2. Gatazkak eskolan: jazarpena

Argi eta garbi geratu da jazarpena eta harreman bortitzek pertsonengan eragin kaltegarria dutela, baina gai honen garrantzia haratago doa. Izan ere, erlazio desegoki hauek bereziki eragiten diete ume eta gazteei. Garapen prozesuan barneraturik daudenez, beren ingurunearekiko kalteberagoak baitira. Beraz, bereziki garrantzitsua da prozesu honetan zehar harreman osasuntsuak ezartzen ikastea eta aipaturiko estres toxikoa ekiditea. Hori dela eta, hainbat ikerketa egoteaz gain, erakunde zibilak ere daude problematika honi konponbideak bilatzen. Esaterako, Espainiako Gurasoen Elkarte Konfedereazioak (CEAPA) eskola osasungarriak eta seguruak eraikitze beharra planteatzen du, pertsonen arteko harremanak hobetzeko eta indarkeria- edo jazarpen-egoerak saihesteko plan bat barne hartzen duten hezkuntza-politikak txertatzen dituen (FUNDADEPS, 2012).

Zoritxarrez, ikastetxeetako errealitatearen parte bihurtu da jazarpena. UNICEFen (2014) nazioarteko analisiak, *Hidden in plain sight*-ek, azaleratu zuen 13 eta 15 urte bitarteko hiru ikasletik batek maiz jazarpena sufritu zuela baieztatu zuen. Gainera, nerabeen %30ak (11 eta 15 urte bitartean) azken bi hilabeteetan bere ikaskideren bat jazarri zuela onartu zuen. Euskal Herrian zentratuz gero, hemen ere joera gorakorra dagoela ikus daiteke. 2016an Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak egindako ikerketaren arabera (ISEI) 2008tik hona, tratatu txarren indize orokorra %4,6 puntu igo da Lehen Hezkuntzan eta %8,2 DBHn. Bestalde, ez da gainbegiratu behar

jazarpenaren inguruan gizartearen kontzientzia lar handitu dela. Hala, egoera hauek salatzearen gaineko estigma gutxitzen joan da azken urteotan, eta arrazoi hau egon daiteke igoera honen atzean. Dena den, tratu txarrek ikusgarritasun handiagoa izatea hauei aurre egiteko lehen pausua baino ez da, hortik aurrera hezkuntza sistemak bere azpiegiturak indarberritu beharko ditu egoera honetara egokitzeko.

Egokitzapen horiek egin ahal izateko, egun hezkuntza sistemak ikastetxeetako indarkeriaren aurka martxan dituen Hezkidetza eta Bizikidetza plana aztertu behar dira. Lehenik eta behin, Hezkidetza plana koherentea da EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Planak ezarritako lehentasunekin eta XI. Legegintzaldirako Hezkuntza Sailaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Dokumentu Programatikoa ezarritako lehentasuneko berdintasun-politikekin. Era berean, planak hiru helburu nagusi dauzka: hezkidetza sistemaren hornidura egokia bermatzea, erkidegoko hezkidetzaren egoera aztertzea, eta “ikasleen arteko errespetua, elkarrizketa, elkarreraginak, elkartasuna eta berdintasuna ekar ditzaketen metodologiak nabarmentzea” (Hezkuntza Saila, 2019, p.7). Plan honen arabera, eskola da botere-harremanak eraldatzen laguntzeko funtsezko eragile sozializatzailea, eta hemendik hasi behar da berdintasunean oinarritutako eta indarkeriarik gabeko hezkuntza bermatzeko ahalegina. Hala ere, ikastetxeak ez dira eragile sozializatzaile bakarrak, gizarte osoaren inplikazioa behar da benetako aldaketak eskuratzeko. Bestela esanda, hezkuntza komunitate osoaren inplikazio eta lankidetzaren behar da indarkeriaren prebentzioan benetako aurrerapausoa emateko (Hezkuntza Saila, 2019).

Bestalde, Bake eta Bizikidetza Planaren helburua gutxieneko balio etiko eta demokratiko batzuk partekatzen dituen gizarte bat bermatzea da, non desadostasunak izatea posible den inoren eskubiderik urratu barik (Lehendakaritza, 2016). Planaren arabera, giza eskubideen urraketan eta indarkeria fenomenoaren aurka ekiteko modua prebentzioa da. Baina ez edonolako prebentzioa, egoera hauen aurrean oinarri alternatiboak irakatsi eta sustatzea, alegia. Bizikidetzaren barnean zenbait mikroakordio daude, eta haien artean Gizalegez akordioa azpimarratu nahi da. Akordio hau mota guztietako indarkeria fenomenoaren prebentziora bideratzean datza. Hala nola, hezkuntza-oinarri alternatiboak proposatzen dituzte, hau da, indarkeriaren edota bidegabekeria egoeren aurrean erantzun baketsu eta konstruktiboak bermatzen duten oinarriak. Bestalde, planak ikastetxeaz gain komunitateko eragile guztien lankidetzaren behar da.

ekintzagatik egiten du apustu, hala, gatazken konponketa baketsuan oinarritutako hezkuntza integrala indartzeko.

Laburbilduz, jazarpena eskolako egunerokoan txertatuta egonda indarkeria egoerei aurre egiteko behar garbia dago. Hori horrela, hezkuntza alorreko marko legal honek indarkeriaren aurkako berariazko programen bide-orri izatearen funtzioa betetzen du. Hau kontuan izanik, lau ezaugarri garrantzitsu bete behar ditu edozein berariazko programak; prebentzioa, komunitate osoaren inplikazioa, elkarlana eta oinarri alternatiboak izatea.

1.3. Eredu dialogikoa

Gatazken aurrean ekiteko hainbat hezkuntza-programa desberdin aurki daitezke, eta hiru ikuspegitan multzokatu daitezke; diziplinazkoa, bitartekaria eta dialogikoa, eta azken hau aztertuko da hurrengo lerroetan

Gatazkei aurre egiteko ikuspegi globalago baten bila, ikuspegi dialogikoa sortu zen. Ikuspegi honek komunitate osoa inplikatzeko du elkarriketaren bidez; zeinetan, gatazken jatorriak eta kausak aurkitzeko aukera ematen den (Flecha, 2015). Beraz, elkarlanean oinarritutako klima bat sortzearen bidez gatazken prebentzioa lortzea da modelo honen helburua. Horretarako, komunitate osoko pertsonak parte hartzen dute arauen proposamen, ezarpenean baita hauek ez betetzean sortzen diren gatazken konpontze prozesuan ere. Izan ere, elkarbizitza mantentzearen eta zaintzearen ardura komunitate osoari dagokio, ikuspegi honi dagokionez (Sanchez eta Teixido, 2016). Hala, indibiduen arraza, kultura maila, eta maila akademikoak ez dute beren iritzi eta ideiak partekatze eskubidea oztopatzen. Aitzitik, zenbat eta aniztasun handiagoa izan komunitatean, lortutako akordioa eraginkorragoa izango dela azpimarratzen du, agente guztien pertzepzioak kontuan izango baititu (Flecha, 2015).

Hortxe dago ikuspegi honen gako nabarmenena; akordioa. Gatazken prebentzioa gertatzeko elkarriketa aukera eta espazioak bermatu behar dira, baina ez edonolako elkarriketak; deliberaziozko demokrazian oinarritutakoak, baizik. Hau da, argudioen bidezko eztabaidak izan behar dira, non hasierako jarrera bat aldatzea eta haren alternatibak aurkeztea posible den, dena adostasuna lortzeko helburuarekin (Flecha, 2015). Halaber, akordio prozesu hau etengabea da; ikuspegi dialogikoan elkarbizitza arauak sortzen direnetik, aplikatu, aurrera eraman eta ebaluatu arte prozesu osoa

elkarrizketa etengabean oinarritzen baita. Horretarako, elkarbizitza batzorde mixtoak (familieez, irakasleez eta ikasleez osatuta) sortzen dira eta berdintasunezko elkarrizketaren bidez jorratzen dituzte gaiak (Sanchez eta Teixido, 2016).

Era berean, eredu dialogikoa ikastetxe batean planteatzerakoan hainbat alderdi hartu behar dira kontuan. Hasteko, irakasleriaren, eta bereziki zuzendaritza taldearen, esku geratuko da lidergo instituzional, pedagogiko eta emozional bat izatea; eta lidergo hau izango da bizikidetzaren plan bat aurrera eramateko behar diren antolamendu-baldintzak ezarriko dituen (Torrego eta Martinez, 2014). Era honetara, komunitateko agente guztien ekarpenei eta lidergo irmo eta kolaboratzaile bati esker elkarbizitzaren kalitatea lar hobe daiteke, hala, gatazken sorrera ekidinez. Bestalde, irakasleen eta ikasleen arteko konfiantzazko harremanek, ikasleen segurtasun eta elkarbizitzaren hobekuntza dakarte (Gregory eta Cornell, 2009). Honetaz gain, ikasleen talde barruko elkartasuna eta adiskidetasuna funtsezkoak dira indarkeria prebenitzen eta desagerrarazten (Banyard et al., 2005). Hain zuzen ere, ISEI-k (2016) antolatutako ikerketaren arabera jazarpenaren biktima diren erkidegoko ikasleen %65ak lagunetara eta familiara jotzen dute laguntza eske. Adituek fenomeno honi *bystander intervention* deritzote; hots, *bullying*-aren lekuko diren eta biktima babestu eta defendatzen dituzten taldekideek ematen duten babesa. Hala, ikaskideek, eskola-indarkeria egoera baten lekuko gisa, isiltasunaren legea apurtu eta salatu egiten dute jarrera bidegabea, espazio solidarioak sortuz (Thapa et al., 2013). Haatik, ikasleen %24ak batzuetan ez dio inori kontatzen (ISEI, 2016), lekukoaren rola garrantzia azpimarratuz.

Adituen hitzetan, espazio solidario hauei esker indarkeria egoerak gainditzea eta, etorkizunean, ekiditea posible bihurtzen da. Izan ere, kalitatezko giza interakzioak behar dira indarkeria gainditzeko eta indarkeria jasaten dutenak babesteko. Hala frogatu dute hainbat ikerketek, non adiskidetasun harremanetan prestigio soziala eta irudia lehenesten denean, ikasle horien neuronak jarrera arriskutsuetarako joera handiagoa dutela ikusi da. Alabaina, harremanen oinarria elkartasuna eta konpromisoa direnean garunak jokabide arriskutsuak ez ditu hain erakargarri bezala interpretatzen. Hori argitzeko, adiskidetasun harremanen kalitateak arrisku-jokabideekiko sentikortasun neurala modulatu du, alegia (Telzer et al, 2015). Ondorioz, kalitatezko lagunen arteko harremanak indarkeriatik eta estres toxikotik komunitate osoa babesten dutela esan daiteke.

Ikuspegi dialogikoaren eraginkortasuna bere frogatutako oinarri zientifikoan datza. Flecharen (2015) *Strategies for inclusion and social cohesion from education in Europe* ikerketaren esparruan identifikatutako Hezkuntza Jarduera Arrakastatsu gisa (HJA), ikastetxeetan eta komunitatean eskuragarri dauden baliabideak berrantolatu eta hezkuntza-gune inklusiboak sortzea lortzen baitu. Eraldaketa horrek ikasleen errendimendu akademikoaren hobekuntza ekarri du, kohesioa handitzearekin batera.

Laburbilduz, ikuspegi dialogikoak, hezkuntzako marko legalak ezarritako lau ezaugarriak barneratzen ditu. Gatazken kudeaketa bideratzen duen oinarri alternatiboa elkarriketa izanik, komunitate osoaren inplikazioa eskatzen baitu, elkarlanaren bidez akordio bat lortzeko. Era berean, indarkeriaren aurkako ekimenean lekukoen rola garrantzia azpimarratzen du kalitatezko adiskidetasun harremanak bultzatzearen bitartez. Azkenean, ikastetxean eta ikastetxetik at konfiantza- eta segurtasun-giro bat sortzen da, non indarkeria eta gatazka egoera urriago gertatzen diren. Hortaz, ikuspegi dialogikoak hezkuntza inklusibo eta demokratikoago baterantz eraginkortasunez bideratzen duela esan daiteke.

1.4. Ausarten Kluba

Eredu dialogikoaren barnean aurki daitekeen berariazko programa bat da Ausarten Kluba. Elkarbizitza baketsua eta inklusiboa bermatzeko Gasteizeko eskola batean proposatutako tresna bat, alegia. Sozializazio prozesuaren hastapenetik indarkeriaren desgokitasunari buruzko heziketa baten alde egiten du apustu, hots, biolentziaren prebentzioa 0 urtetik hasi behar dela aldeztzen du (Sancho eta Pulido, 2016).

Ausarten klubaren inplementazioa lehenengo aldiz CPI Sansomendi IPI (Vitoria-Gasteiz) ikas-komunitatean izan zen, 2014-2015 ikasturtean. Gasteizeko eskola honetan, ikasle guztiak dira ijitoak edo etorkinak, eta auzoko jatorria duten gainerako ikasleak inguruko beste ikastetxeetara joaten dira. Testuinguru honetan, eskolako ikasleen emaitza akademikoak eskasak zirela eta absentismo maila altua zegoela ohartu ziren (HikHasi, 2018). Gainera, elkarbizitza gatazkatsuen ondorioz ikasleekiko espektatiba kaxkarra zegoen. Orduan, egoerari aurre egiteko ikastetxea ikas komunitate bihurtzea erabaki zuten. Prozesu honetan barneratuta zeudelarik, elkarbizitza eraginkorki lantzeko nahia plazaratu zuten komunitateko agente desberdinek, hala, “eredu dialogikoaz baliatuz eta komunitate osoa inplikatuz hainbat Hezkuntza Jarduera Arrakastatsu

eramaten dituzte aurrera” (HikHasi, 2018). Esate baterako, talde elkarreragileak, tertulia dialogikoak, senideen formazioa eta gatazkak saihesteko eta ebazteko eredu dialogikoa. Ikas komunitatea bihurtzeko prozesu honetan jasotako formazioarekin, Sansomendiko lehenengo mailako irakasle bati Begoña Ibarrolaren (2012) *Ausarten Kluba* liburua gatazken prebentzioa lantzeko erabiltzea otu zitzaion. Denbora gutxian ohartu ziren nahasketa honen potentzialaz eta azkenean Ausarten Kluba Hezkuntza Jarduera Arrakastatsu baten barneko berariazko programa bat izatera pasa zen. Jarduera hauei esker Sansomendiko lan-dinamika guztiz eraldatu zuten eta bizikidetzagatazkek nabarmen murriztu ziren (Sancho eta Pulido, 2016).

Programa honen arabera, ausarta izatea lagunak ondo tratatu eta indarkeria ez erabiltzea da, eta hauen arteko elkarrekintza bultzatzen du “klub” bat sortuz. Izatez, indarkeriaren aurka dauden, hau salatzen duten, besteak ondo tratatzen dituzten eta adiskidetasuna baloratzen duten pertsonen klub bat da (Sancho eta Pulido, 2016). Programaren oinarriari dagokienez, hasteko, lehenengo sozializazioaren edo sozializazio primarioaren garrantzia dago. Hori dela eta, urteetan gailendu den “umeen gauzak dira” aitzakia ez da erabiltzen; aitzitik, indarkeria egoerak azaleratzen direnean erantzun irmoa ematen zaie. Era berean, indarkeriaren aurka komunitate osoaren inplikazioa eskatzen du, programak komunitate osoko dinamikak barneratzen baititu, ez soilik eskola barrutikoak. Horrez gain, indarkeriaren prebentzioa ikasleria osoaren elkarrizketa eta lidergoan finkatzen du. Indarkeriarik gabeko giro seguru bat sortzeko funtsezko faktorea baita berdinen arteko babesa (Sancho eta Pulido, 2016).

Halaber, erasotzaileari protagonismoa kentzean eta biktimei ematean zimentatzen da programa. Jarrera bortitz eta desagokiei protagonismoa murriztuz, hauen erakargarritasuna ere murrizten baita (Katamotz, 2020). Gainera, aldi berean biktimei kasu egin eta jarrera egokiei (lekukoek laguntza eskaintzea, esaterako) protagonismoa emanda, erakargarriago bihurtzen dira hauek. Hortaz, etorkizunean jarrera baketsu eta positiboak erreproduzitzeko aukera gehiago egongo dira. Guzti hau, etikaren eta desioaren hizkuntzan oinarritutako fenomeno bat da, non etikaren hizkuntza errealitatea deskribatzeko erabiltzen da (“hau ondo dago”), aitzitik, desioaren hizkuntza erakargarritasunari dagokio (“hau dibertigarria da”, “gustuko dut”). Haur eta nerabeek desioaren hizkuntza erabiltzen dute, eskolak eta familiak, ordea, etikarena erabiltzen

dute. Programa honen xedea lortzeko, beharrezkoa da jarrera oldarkorren eta indarkeria egoeren erakargarritasuna zapuztea (Flecha eta Puigvert, 2010).

Bestalde, fokoa jarduera positiboetan jartzeak eskolako hainbat dinamika eraldatzen ditu. Salataria zena, ausarta bihurtzen da. Lagun bat babesteko irakasleari indarkeria egoera batez berri ematea, pertsona ausart baten eredia baita eta ez kontaktatu batena. Gelako lider oldarkorra zenak berriz, bere jarrera desegokietan hausnartzeko denbora du bakardadean; eta jazarpenaren biktima bakartia zenak bere kideen babesa sentitzen du. Azken finean, jarrera aldaketa arrakasta sozialari lotuta egon da beti; baina ikuspegi berri honekin jarrera positibo eta solidarioak sustatzea lortzen da.

Orobat, Ausarten Klubaren oinarrian lagunen aukeraketa ere badago. Ideia honen atzean adiskidetasunaren eta tratu onen arteko lotura indartzea dago. Beraz, ikasle ausartak haien lagunak zeintzuk diren aukeratzeko eskubidea dute, eta argi uzten dute ez daudela behartuta gaizki tratatzen zaituztenen lagun izatera. Ongi tratatzen duen hori desiratzea eta txarto tratatzen duena baztertzea, talde dinamika bezala ezartzea lortu behar da (Katamotz, 2020).

Indarkeria prebentzio programa hau martxan jartzeko prozesuan zehar helburu desberdinak planteatzen dira. Hasiara batean, klaseko istilu ezkutua plazaratzea bilatzen da. Jarraian, ikasgelako istilu biolentoen frekuentzia eta intentsitatea gutxitzea nahi da. Bukatzeko, pertsona biolentoekiko erakargarritasuna murriztea etorkizuneko genero indarkerian eragina izateko: “Mutil biolentoak ez izatea erakargarriak nesken artean, ezta inoren artean ere” (Katamotz, 2020).

2. Metodología

Lan hau metodologia komunikatibo kritikoaren oinarriari jarraiki burutu da. Metodologia komunikatiboa gizartearen eta zientziaren garapenean sortutako behar berriei emateko erantzun metodologikoa da, eta eragin handia izan du desparekotasun eta bazterkeria egoeren eraldaketan (Gómez, Puigvert eta Flecha, 2011). Izatez, Europako ikerketen Programa Markoko ikerketa ugari erabili dute ikuspegi hau errealitatea aztertzeko. Esaterako, Flechak (2015) hezkuntza-arrakasta handiagoa lortzen duten hezkuntza-jarduerak, eta gizarte-errealitatea hobetzen duten elkartasun-moduak aztertu zituen metodologia honen bidez.

Metodologia komunikatiboan berdintasunezko elkarrizketa da gakoa. Hala, ikertzailea eta ikertzen ari diren komunitateko agenteen arteko elkarrizketan interpretazio-hierarkia apurtzen da. Hortaz, jakintza berria ikerlarien eta ikertuen arteko elkarrekintzaren bidez eraikitzen da, lehenengok jakintza zientifikoa emanez eta bigarrenek haien munduko iritzi eta bizipenak. Elkarlanean eraikitako jakintza berri hauek gizarte-arazo ugari aurre egiteko erabilgarriak dira eta agente sozialei aukera ematen die gizarte politika berri eta eraginkorragoak aldarrikatzeke. Ondorioz, metodologia komunikatiboaren bigarren ezaugarri garrantzitsu bat da gizartea eraldatzeko borondatea (Gómez, Puigvert eta Flecha, 2011).

Metodo komunikatiboan hiru informazio-bilketa teknika aurki daitezke; bizitza kontakizun komunikatiboa, eztabaida taldea eta behaketa komunikatiboa. Dena den, galdetegi eta elkarrizketak ere egin daitezke kudeaketa komunikatibo bat mantenduz gero, baldin eta datuen analisisa ikuspegi berdinetik egiten bada. Eztabaida taldeei buruz aipagarria da ikerlariak egoerari buruzko datuak aurkezten dizkiela ikertuei, eta haiek dira datu horiekin beren bizipenei lotutako aportazioak egiten dituztenak. Beraz, errealitatearen interpretazioa dialogikoa da dialektikoa izan ordez (Gomez, Siles eta Tejedor, 2012).

3. Lanaren garapena

3.1. Ikerketaren helburuak

Arestian aipatu bezala, lan honen helburu nagusia Ausarten Kluba programaren eraginkortasuna eta programa garatzeko jarraitu beharreko pausoak aztertzea da. Baita programa hau aplikatzeko lanean ari den komunitatearen pertzepzioa plazaratzea ere. Azterketa hau bideratzeko lau galdera planteatu dira, eta galdera bakoitzak errealitatearen alderdi bat aztertzeke aukera ematen du. Lehenengoa programa ezartzeko prozesuari dagokio. Hurrengo biek programaren abantaila eta desabantaila buruzko irudi bat ematen lagunduko dute. Azkena, ordea, komunitateko agenteen gogobetetze orokorra azaleratzeko funtsezkoa izango da.

1. Zer pausu eman dira Ausarten Kluba programa inplementatzeko?
2. Zer oztopo izan dituzte prozesu honetan zehar? Eta zer oztopo espero dituzte etorkizunean?

3. Zer onura atzeman dituzte komunitateko dinamiken artean? Eta zer onura espero dituzte etorkizunean?
4. Orokorrean programa eraginkorra iruditzen zaie? (bizipenak, espektatibak, iradokizunak)

3.2. Ikerketaren diseinua

Ikerketa kualitatibo hau metodologia komunikatibo kritikoa jarraituz burutu da. Horretarako, Bilboko eskola publiko bateko kasu-azterketa bat planteatu da. Ikastetxe honetako ikasleen testuinguru kulturalari dagokionez, ijito-komunitateak asko markatzen du. Izan ere, ikasleen % 59 ijitoak dira, eta beste % 41 etorkinak (edota etorkinen seme-alabak). Beraz, eskolak testuinguru multikulturala du. Azpiegitura zabala izan arren, ikasle gutxiko eskola da. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak batuz 78 baitaude, eta haiekin batera 16 irakaslek egiten dute lan.

Aipagarria da bestalde, eskolaren ardatz metodologikoa. 2013-2014 ikasturtean ikastetxeak aldaketa-prozesu konplexua jasan baitzuen, eskola publiko tradizionaletik ikas komunitate batera. Ikas komunitateak hezkuntza-proiektu bat dira, eta hauen helburu nagusia eskola-porrota gainditzea da eta ikasle guztientzat hezkuntza-berdintasuna bilatzea, baita komunitateko kideen arteko bizikidetzaz aberasgarria lortzea ere (Elboj, Valls, eta Fort, 2000). Proiektu hau ere eredu dialogikoan oinarritzen da. Ildo beretik, komunitatearen partaidetza funtsezko ezaugarritzat du ikas komunitateen proiektuak. Hori dela eta, Kale Dor Kayiko ijitoen elkarte eta auzoko Komunitate Garapenerako Elkartearekin elkarlanean dabilta. Horrela, Kale Dor Kayikotik langile batzuk astean ordu batzuetan zehar eskola honetako ikasleei laguntzera gerturatzen da eta bigarrenek eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen dituzte.

Halaber, ikas komunitateen proiektuan barneratzen diren ikastetxeek HJA barneratzen dituzte. Hauek, zientziak bermatutako esperientzia didaktikoak dira eta emaitza akademikoen hobekuntza dakarte, baita harreman interpersonala ere (Flecha, 2015). Bestalde, jarduera guztiek bi ezaugarri betetzen dituzte beti; unibertsaltasuna eta transferigarritasuna, bestela esanda, eraginkorrak dira edozein hezkuntza testuingurutan. Gauzak hala, eskola honetan hainbat HJA eramaten dituzte aurrera; Tertulia Dialogikoak, Talde elkarreragileak, familien formakuntza proiektuak eta lan honi dagokion gatazkak saihesteko eta ebazteko eredu dialogikoa, zehazki Ausarten Kluba.

3.3. Lagina eta informazioa biltzeko teknikak

Ikerketa hau burutzeko bi informazio-bilketa teknika erabili dira, elkarrizketa erdi-egituratua eta eztabaida taldea. Hala, 4 elkarrizketa (E) erdi-egituratu egin dira komunitateko agente desberdinekin eta eztabaida talde (ET) bat.

Hurrengo taulan hautatutako laginaren profilen zehazpena ematen da (N = 11). Partaide guztiek komunitateko agente bat ordeztzen dute eta haien aportazioen bidez eskolako errealitatea nolako den aztertu nahi izan da. Hurrengo taulan partaide bakoitzaren kode-izena eta bere agentearen informazioa agertzen da, baita eskolan daraman denbora ere, emaitzetan faktore garrantzitsua izan dela aztertu baita.

1. Taula

Laginaren profilen zehazpena

Partaidetza kodea	Agente-taldea	Urte kopurua eskolan
ET_Iraka_1	LHko irakaslea: ordezkapen bat egiten dago	>1
ET_Iraka_2	HHko irakaslea	4
ET_Iraka_3	HHko irakaslea: elkarbizitza arduraduna	4
ET_KDK	Kale Dor Kayikoko langilea	2
E_Ika_1	6. mailako ikaslea (12urte)	7
E_Ika_2	6. mailako ikaslea (11urte)	8
E_Ika_3	5. mailako ikaslea (10urte)	8
E_IkaBuru	Ikasketa Burua (2021-2022 kurtsotik)	2
E_Fam	Familia (2 ikasleren ama eta jantokiko langilea)	8
E_JanAr_1	Jantokiko arduraduna	2
E_JanAr_2	Jantokiko arduraduna	8

3.4. Ikerketaren prozedura

Ikerketa aurrera ateratzeko ikastetxeko ikasketa buruarekin hitz egin behar izan zen. Emailez eta telefonoz egin ziren elkarrizketak egiteko kudeaketak. Honela, bi egunetan zehar egin ziren elkarrizketak. Elkarrizketa bakoitza eskolako gune eta momentu desberdin batean egin ziren partaideen ordutegi eta errutinara moldatu nahian. Dena den, espazio eroso batean izan ziren elkarrizketa guztiak, zeinetan partaideak patxadaz hitz egin zezaketen. Elkarrizketa guztiak 10-20 minutu ingurukoak izan ziren, baita eztabaida taldea ere. Ikas komunitatea izanik, ikerketa honen metodoaren oinarri den eredu dialogikora ohituta zeuden eta erraz ulertu zituzten elkarrizketa galderak. Elkarrizketatu guztiei galdera sorta berdina egin zitzaien (1. Eranskina). Aitzitik, ikasleei galderak egokitu zitzaizkien; esaterako: “*Aurten landu baino lehen ezagutzen zenuten Ausarten Kluba?*” edota “*Nola funtzionatzen du?*” galdetu zitzaien lehenengo eta bigarren galderaren ordean.

3.5. Datuen analisia eta emaitzen interpretazioa

Datuen analisia ikuspegi komunikatiboaren arabera egin da, hau da, bi dimentsio hartu dira kontuan; baztertze-dimentsioa eta eraldaketa-dimentsioa. Lehenak talde kalteberen bazterkeria-egoera erreproduzitzen duten elementuak identifikatzeko laguntzen duten, iritzi, sentsazio eta sinesmen guztiak biltzen ditu. Bigarrenak, dimentsio eraldatzaileak, bazterkeria-egoera horiek gainditzeko moduak eta bideak identifikatzeko aukera ematen digun informazio guztia biltzen du. Horrela, bazterkeria erreproduzitzen duten oztopoetatik abiatuta aurkeztu daiteke informazioa, eta, ondoren, eraldaketa-dimentsioa oztopo horiek gainditzeko tresna gisa planteatu daiteke. Informazioa aztertze eta aurkezteko modu horrek erraztu egiten du emaitzen eragin politiko eta soziala handiagoa izatea (Gomez, Siles eta Tejedor, 2012).

Kasu honetan, baztertze-dimentsioan sartuko diren elementuak programaren ahulguneak edota hau planteatzerakoan aurkitutako oztopoak izango dira eta eraldaketa-dimentsioan oztopo horiei aurre egiteko elementuak. Hala, ikerketa galderari erantzuten dioten lau ataletan batu dira jasotako datuak, 1) Ezarpen-prozesua: Ausarten Klubaren ezarpena nolakoa izan den, 2) Oztopoak: komunitateko agente desberdinek aurkitu dituzten zailtasunak prozesu honetan (baztertze-dimentsioa); 3) Onurak: komunitateko agente desberdinek antzeman dituzten aldaketa positiboak; eta 4) Eraginkortasuna:

orokorrean programarekiko komunitateko agente desberdinek duten ikuspegia (eraldaketa-dimentsioa).

3.5.1 Ezarpen-prozesua

Komunitate osoari eragiten dion programa denez, programa ezarri baina lehen eskolako errealitatearen analisisa beharrezkoa zela erabaki zuen klaustroak. Hori dela eta, galdetegi batzuen bidez komunitateko agente guztien iritzi eta ikuspuntuak jaso, aztertu eta partekatu ziren. Argi ikusi zen elkarbizitza zailtzen zuten gatazka ugari zeudela eskola eremuan eta beraz Ausarten Kluba programa berrezartzea erabaki zuten.

Prozesuari hasiera emateko, elkarbizitza arduradunak (ET_iraka_3) Sansomendiko langileengandik formakuntza jaso zuen eta zuzendaritza taldearekin koordinatuta klaustroari proposatu zion programa. Onarpena eman ondoren, irakasle guztiek jaso zuten formakuntza Ausarten Kluba aurrera eramateko, gehien bat Sansomendiko arduradunen bidez baina baita tertulia dialogiko pedagogikoez baliatuz. Behin irakasleek beharrezko jakintzak eskuratuta familiei, jantokiko arduradunei eta auzoko elkarteei (Kale Dor Kayiko eta Komunitate Garapenerako Elkartea) zabaldu zieten Ausarten Klubari buruzko informazio saioretara etortzeko aukera. Era berean, ikasleak ere programa lantzen hasi ziren une hartan.

Hurrengo pausoa, komunitate osoak biolentziaren aurkako araua erabakitzea zen. Hau batzorde mixto baten laguntzaz burutu zuten, non agente bakoitzak (ikasleek, irakasleek, jantokiko arduradunek eta familiek) bere proposamenak batu zituen eta batzordean adostu zuten araua. Hala, arau sinple eta motz bat aukeratu zuten, “*Eskola honetan tratu onak onartuko ditugu soilik. Biolentziari EZ esaten diogu: ez egin edo esan zuri egitea edo esatea gustatuko ez litzaizukena*”. Dena den, komunitatearen ideia asko arau batean sartzen ez zirenez klaustroak dekalogo bat sortzea erabaki zuten; gero, asanblada batean partekatu zena (3. Eranskina). Ondoren, *Ausarten Kluba* (2012) liburua lantzen hasi ziren hainbat baliabide desberdinen bidez; liburuaren bideoa ikusiz, ikasle nagusienek gazteenei irakurriz eta abar.

Burruka gehiago zeudenez eta denok ezagutzen genunez liburua, ba esan ziguten liburua hartzeko eredu bezala. (E_Ika_2; 2:19)

Horretarako, gelako gune batean ikasle bakoitzak bere super-heroia kokatu zuen. Kortxo baten alde batean Ausarten Kluba jarrita eta bestean koldarren eremua. Egunaren hasieran, ikasle guztiak daude Ausarten Klubaren barnean, eta jarrera desegokia duten ikasleak bere super-heroia koldarren aldera mugitu behar dute, gelakideen asanbladak hala erabakitzen badu. Ikasleek jarrera desegokia aldatzen dutenean eta asanblada ados dagoenean, haien super-heroia Ausarten Klubean berrezartzeko aukera dute. Dena den, egunaren hasieran ikasle guztiak Ausarten Klubean egotea beharrezkoa dela azaltzen du programak. Hau, ikasleek beren jarrerari buruzko hausnarketa egiteko aukera emateko baita, ez umeen etiketazioan erortzeko (HikHasi, 2018).

Idea ez da (erasotzailea) baztertzea, baizik eta talde bezala lortu behar dute beste pertsonak ausarten taldera erakartzea. [...] Talde osoaren ardura da erakartzea. (E_IkaBuru; 11:56)

Ildo beretik, protagonismoa biktimari eman behar zaio eta ez erasotzaileari (Katamotz, 2020). Honetarako hainbat estrategia eta lelo lantzen dituzte ikasleek, eta denak dekalogoan jasotzen dira. Dekalogo hau eskolako hizkuntza guztietara itzultzeko familiei eskatu zitzaizen laguntza, hala eskolan zehar aurkitu daitezke kartelak Kurduz, Bengalez, Ingelese, Frantsesez, Euskaraz, Gazteleraz, Arabiarrez eta Errusieraz. Prozesu guztian zehar, aipatutako jarrera positiboak indartzeko desioaren hizkuntza, eta errefortzu positiboak (urrezko izarrak, txangoak eta abar) erabil daitezke (HikHasi, 2018). Eskola honetan, eskumuturreko batzuk banatu zitzaizkien ikasle guztiei. Egunaren hasieran denek eramaten dute jarrita eta jarrera koldarra dutenei kendu egiten zaie asanbladetan, non koldarren eremuan egongo diren denbora erabakitzen den demokratikoki.

3.5.2 Oztupoak

Bazterkeria egoerak erreproduzitzen duen funtsezko elementu bat aurkitu da kasu-azterketa honetan; agente guztien arteko koordinazioaren ahulezia. Eskola honetako klaustroak aldaketa handia jasan zuen duela lau urte, eta aldaketa handi honek Ausarten Klubaren ezarpen prozesua oztopatu zuen.

Zuzendaritza talde zaharrak ikas komunitate proiektua ezarri zutenean jarri zuten Ausarten Kluba martxan. (ET_Iraka_2; 2:54)

Behar handia zegoen momentu horretan bertan baina klaro irakasle guztiak berriak izanda hainbat gauza aurrera eramaten hasi ginen eta ezin izan genuen hori ere aurrera eraman. (ET_Iraka_3; 3:00)

Honen ondorioz, Ausarten Kluba programaren ezarpena ez da prozesu lineal bat izan. Agente desberdinen arabera programa ezarrita zegoen 2013-2014ko kurtsotik. Haatik, programa ez zegoen guztiz ezarrita, ez baitzuen komunitatearen parte-hartzea kontuan hartzen eta beraz, ez zuen eredu dialogikoa betetzen ere. Honek programak exigitzen duen koordinazioa nabarmen zaildu du.

Ba oztopoa klaustroak jarraitasun bat ez izatea [...] hau (Ausarten Kluba) ezarri bazen duela lau urte... Orain egin behar izan dugu formakuntza eta dena berriro. Orduan hori oztopo bat da eta izango da urtero. (E_IkaBuru; 15:18)

Bestalde, Ausarten Klubak komunitateko espazio guztiak barneratu behar ditu (Sancho eta Pulido, 2016) ez soilik gelako dinamikak. Hainbestez, espazio horietako agente guztien arteko koordinazio ahalegina handiagoa izan behar da (Hezkuntza Saila, 2019). Dena den, koordinazio hau ez da egun batetik bestera lortzen. Honek azaltzen du zergatik Ausarten Klubak gela barruko dinamiketan emaitza hobeak ematen dituen jantokian, patioan edota etxean baino.

Ikuspuntu hori geuk daukagu nagusiok, nik ez diet entzun oraindik esaten euren artean “eres un chivato”. (ET_KDK; 13:50)

Ikasgelatik at ez da berdina [...] gure aurrean ez dute esango (“chivato”) baina haien artean bai. (E_Fam; 2:52)

Gainera, koordinazio honek ikasleek lantzen duten mezuaren koherentzia bermatzen du. Horretarako, hezkuntzaren atak ikasleen senideei ireki dituzte eskola honetan, baina hortik aurrera familien inplikazioa behar da, eta hau gabe koordinaziorik eta ondorioz koherentziarik lortzea ezinezko bihurtzen da.

Batzuetan eskolako mezua eta kalean jasotzen dutena ez datoz bat eta horrek ez du laguntzen. (ET_Iraka_2; 18:00)

3.5.3 Onurak

Hiru aurrerapauso ikustatu dira; espazio seguruen sorrera, tratu onen garrantzia adiskidetasun harremanetan eta biktimen babesa. Hasteko, ikasleek bere gatazkak haien

kabuz kudeatzeko espazio bat sortzea lortu da, non biolentzia eta irainak ez diren onartzen eta akordioa den nagusi. Ildo beretik, harreman osasuntsuak tratu onetan oinarritzen dira (Racionero, 2018) eta honen kontzientzia bultzatzen ari da ikasleen artean. Ausarten Klubak errespetua ezartzen du adiskidetasunaren, eta ikasleak haien nahi eta beharrak irmoki komunikatzera animatzen ditu.

Guk zabaltzen diegu espazio bat haiek euren artean konpontzeko eta esateko gauzak beldurrik gabe. Norbaitek zeozter txarto egin badau eta ondokoak esaten badio ‘bitu txarto in dozu eta ez dut onartzen hau’. Bestea ez da oldartzen esaten du baietz. Argiago eta garbiago kudeatzen da. (ET_KDK; 12:10)

Hori da, azkenean da esatea: txarto sentitzen naiz eta badaukat eskubidea esateko ondokoari txarto sentiarazi nauela. Ez da ezer gertatzen baizik eta “e jakin txarto sentitzen naizela eta hamen nago eta zure kidea naiz”. (ET_Iraka_1; 12:17)

Gainera, biktimen babesa sustatzea ere lortu du programak. Lehenago isilik geratzen ziren biktima asko atera baitira haien errespetua aldarrikatzera bai ikasgelan baita ikasgelatik kanpo ere. Ikasleen kontzientzietan barneratzen ari da haiek eta denok tratu onak merezi ditugunaren nozioa. Era berean, indarkeriaren lekuko diren ikasleak biktimaren alde jarri eta erasotzaileari aurre egiten diote.

Atzo entzun nion ikasle bati patioan esaten “nahiz eta lagunak izan txarto egin duzu eta egia da berak (biktimak) esaten duena”. (ET_Iraka_1; 16:18)

Esku-pilotako klasean ginen eta bat eliminatu zenak ez zun irten nahi kantxatik eta beste batek esan zionean ateratzeko borrokan hasi ziren. Orduan nire kide bat eta ni sartu ginen gelditzera eta ez ziren gehiago borrokatu. (E_Ika_2; 5:24)

3.5.4 Eraginkortasuna

Oro har, eskola honetan Ausarten Kluba ezartzeko prozesua luze eta konplexua izaten ari da, non komunitate osoaren aldetik esfortzu handia egin dute dagoeneko. Hala ere, prozesu honen hastapenean daudela esan daiteke. Izan ere, oraindik ere badago elkarreragin desegokien presentzia.

Pulsera kentzen dizutenean suposatzen da alde batera utzi behar zaituztela baino ez dugu beti egiten. (E_Ika_3; 3:36)

Alabaina, programaren onurak ere begi-bistakoak dira. Auzoko elkarbizitza arazoak guztiz aldatu dira duela urte gutxi batzuetatik hona eta hau komunitatean ere oso presente bizi dute.

Patioan haserretzen ginen guk nahi genuelako futbolera jolastu baino besteek (gelakideek) ez, eta haserretzen ginen eta bukatzen genuen elkarri iraintzen eta horrela. (E_Ika_1; 4:41)

Eta gero zigortzen gintuzten. (E_Ika_2; 4:48)

Bai hori da, baina orain patioan ez bagaude ados ba hitz egiten dugu eta egiten dugu egun batean futbol eta bestean beste zerbait. (E_Ika_1; 4:50)

Beraz, auzoko biztanleak batzarrak eta asanbladak egiten jarraitu beharko dute agente guztien koordinazioa lortzea ikaskuntza prozesu baten parte baita eta ez da egun batetik bestera gertatzen den harreman bat. Aitzitik, argi geratu da komunitatearen espiritu ekintzailea.

Eskola honetan ikusten dena zera da; mundu guztiak jartzen du bere aldetikan, jantokiko arduradun, irakasle, familia...inor ez da atzean gelditzen. Denok gehitzen dugu ahal duguna eta denok laguntzen diogu bata besteari. Oso gauza garrantzitsua da eta Ausarten Kluba eraginkorra da baina “estamos en ello”. (E_JanAr_1; 6:00)

Ondorioz, guztien elkarlanak komunitate osoko laguntza-sare bat sortu duela esan daiteke. Testuinguru honetan, eraldaketa-dimentsioan bi elementu aurkitu dira, komunitatearen espiritu ekintzailea eta honen esfortzua. Elementu hauek izango dira egun ahulagoa den koordinazio ahalegina bultzatzen jarraituko dutenak eta apurka, pertseberantziak, harreman sinkrono bat landuko dutenak.

4. Ondorioak

Funtsean, ikastetxe seguruak bermatzea Europako zein nazioarteko helburua da, jazarpena eskolako egunerokoan txertatuta baitago. Jakina da errendimendu akademikoaz gain jazarpenak eragin kaltegarriak dakartzala ikasleen garapen prozesuan, eta osasun mentalarekiko azterna arriskutsuak sor ditzakela. Hori dela eta, egoera honen aurrerabiderako, hezkuntzari dagokion komunitate zientifiko eta politikoek prebentzioa, komunitate osoaren inplikazioa, elkarlana eta oinarri alternatiboak aldarrikatzen dituzte.

Argi geratu denez ikuspegi dialogikoak eragile hauek barneratzen ditu. Baina ikerketa honetan zehar zera aurkitu da; gizarteko dinamikak errotik eraldatzea prozesu luze eta konplexu bat dela, non parte hartzaile guztien inplikazioa eta esfortzu etengabea beharrezkoak diren. Ikertutako eskolako Ausarten Kluba prozesu honen eredu garbi bat da eta hastapenean dagoela esan daiteke, hots, oraindik guztiz garatzeke dagoela. Dena den, hezkuntza komunitate osoaren inplikazio eta lankidetzaren behar da indarkeriaren prebentzioan aurrera egin ahal izateko (Hezkuntza Saila, 2019), eta komunitate hau erabat inplikaturik dago. Hala ikusi da, bere dinamikak aztertzean, hastapenean egon arren, lekukoaren pasibitate maila nabarmen jaitsi dela. Gainera orokorrean gatazka gutxiago daude komunitaten. Edonola ere, inplikazio hutsa ez da nahikoa, eta agerian geratu da agente desberdinen arteko koordinazioaren garrantzia ikasleen ikaskuntza prozesuaren koherentzia bermatzeko. Baina koordinazio ahalegin hori da ingurugiro elkarrengaitzatuz eta seguruago bat sortzen laguntzen duena.

Lan honen bitartez hasieran aipatu diren helburuez gain ikusgaitasuna eman nahi zaio, Ausarten Kluba izeneko, Hezkuntza Jarduera Arrakastatsu honi. Izan ere, komunitate honek kohesioa eta errendimendu akademikoa hobetzeko jarrera proaktiboa bereganatu du, eta haien eskura zeuden baliabideak berrantolatuz onura aipagarriak lortzen ari dira. Jakina da hezkuntza dela aurrerapen sozialaren gakoa, baina eraldaketa bermatzeko eskuragarri dagoen teoria hartu eta praktikan jarri behar da, komunitate honetan egiten ari diren bezala Ausarten Klubarekin. Hau baita, gizarte demokratiko eta inklusiboago baten alde egiteko modu duin bat; unibertsaltasunez edonolako testuingurutan funtzionatuko lukeena, transferigarria baita (Flecha, 2015).

Ikerketa honek bi muga aipagarri izan ditu. Alde batetik, nahiz eta laginak komunitateko agente guztien ordezkariak barneratu, errealitatearen adierazpen nabarmena lortzeko lagin zabalagoa beharko litzateke. Bestalde, metodologia komunikatiboa kritikoaren prozedurari dagokionez beste pausu bat geratuko litzateke. Izan ere, ikertutako pertsonekin itzultzea eskatzen du metodologia honek, errealitatearen interpretazioa partekatu eta errealitatearen eta konponbideen azalpen partzial eta zehaztugabeak baztertzeko. Asmoa ez da onarpena bilatzea, ezagutza elkarrekin eraikitzea baizik (Gómez, Puigvert eta Flecha, 2011).

Etorkizunera begira, interesgarria izango litzateke bi muga hauei aurre egitea. Honetaz gain, gatazken kudeaketa eta prebentziorako eredu dialogikoa proposatzen

duen ikerketzaileak ugariak dira, baina agian komunitateko agenteen inplikazioa eta koordinazioa sakonago ikertzea onuragarria litzateke. Bi faktore hauetan eragina duten ezaugarriak zehaztuz gero, sustapen eraginkorragoa ahalbidetuko bailitzateke.

5. Etika profesionala eta datuen babes

Ikerketa osoan zehar erabilitako iturri guztiak erreferentzien bidez aipatu dira. Bestalde, elkarrizketatuak izan diren parte hartzaileen datuak babesteko baimen bat sinatu zuten denek (2. Eranskina). Hala, beharrezkoak diren datuak jaso eta kodifikatu egin dira, 15/1999ko abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babesari buruzko lege organikoari jarraiki.

6. Erreferentziak

- Banyard, V. L., Plante, E. G., Cohn, E. S., Moorhead, C., Ward, S., & Walsh, W. (2005). Revisiting Unwanted Sexual Experiences on Campus A 12-Year Follow-Up. *Violence Against Women, 11*(4), 426-446. doi:10.1177/1077801204274388
- Dalla Pozza, V., Di Pietro, A., Morel, S., & Psaila, E. (2016) *Cyberbullying among young people*. [Dirección general de políticas internas del departamento de políticas C: Derechos de los ciudadanos y asuntos constitucionales, libertades civiles, justicia y asuntos de interior], Parlamento Europeo. <https://data.europa.eu/doi/10.2861/748350>
- Elboj, C., Valls, R. y Fort, M. (2000). Comunidades de aprendizaje. Una práctica Educativa para la sociedad de la información. *Cultura y Educación, 17*, 129-141. <https://doi.org/10.1174/113564000753837241>
- Flecha, A.; & Puigvert, L. (2010). Contributions to social theory from Dialogic Feminism: Giving voice to all women. In D. Chapman (Ed.), *Examining social theory* (p. 161-174). New York, NY:Peter Lang.
- Flecha, R. (2015). *Successful Educational Actions for Inclusion and Social Cohesion in Europe*. New York: Springer.
- FUNDADEPS. Fundación de Educación para la Salud. (2012). *Cómo construir una escuela saludable y segura. Guía para padres y madres*. Madrid: CEAPA. Confederación Española de Asociaciones de Padres y Madres de Alumnos.
- Gómez, A., Puigvert, L., & Flecha, R. (2011). Critical Communicative Methodology: Informing Real Social Transformation Through Research. *Qualitative Inquiry, 17*(3), 235–245. <https://doi.org/10.1177/1077800410397802>
- Gómez, G., Siles, G., & Tejedor, M. (2012). Contribuyendo a la transformación social a través de la metodología comunicativa de investigación. *Qualitative Research in Education, 1*(1), 36-57. <https://doi.org/10.4471/qre.2012.02>
- Gregory, A., & Cornell, D. (2009). “Tolerating” adolescent needs: Moving beyond zero tolerance policies in high school. *Theory into Practice, 48*(2), 106–113. <https://doi.org/10.1080/00405840902776327>

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2015). Eskola Jazarpen Kasuetan Ikastetxeetan Jarduteko Gida. https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/600022e_Pub_EJ_guia_acoso_escolar_2015_e.pdf
- Hezkuntza Saila, (2019). EAE-ko Hezkuntza-Sistamarako II.Hezkidetza-Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023. <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/libro/eae-ko-hezkuntza-sistamarako-ii-hezkidetza-plana-berdintasunaren-eta-tratu-onaren-bidean-2019-2023-ii-plan-de-coeducacion-para-el-sistema-educativo-vasco-en-el-camino-hacia-la-igualdad-y-el-buen-trato-2019-2023/>
- HikHasi. (2018ko urriaren 24a). *Sansomendi ikastetxeko Ausarten Kluba*. http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20181024/Sansomendi_ikastetxeko_Ausarten_Kluba
- Ibarrola, B. (2012). *Ausarten Kluba*. Elkar.
- Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. (2016). Ikaskideen arteko tratu txarrak 2016. https://isei-vei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=de3d36df-c8ec-4d7a-8bb2-1637f55d56eb&groupId=635622
- Kale Dor Kayiko, 2022. *Quienes somos*. Kaledorkayiko.org. <https://www.kaledorkayiko.org/iban/kaledorkayiko.html>
- Katamotz. (2020ko martxoaren 3a). *Zer da ausarten kluba?* <https://katamotz.net/2020/03/03/zer-da-ausarten-kluba/>
- Lehendakaritza. (2016). Bakea eta Bizikidetza. <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/libro/bakea-eta-bizikidetza-2016ko-azaroa-paz-y-convivencia-noviembre-2016/> -tik berreskuratua
- Moore, S. E., Norman, R. E., Suetani, S., Thomas, H. J., Sly, P. D. & Scott, J. G. (2017) "Consequences of bullying victimization in childhood and adolescence: A systematic review and meta-analysis": *World Journal of Psychiatry*, 7 (1), 60–76. <https://doi.org/10.1111/add.13973>

- Racionero Plaza, S. (2018). Relaciones humanas de calidad como contexto de salud y libertad. *Revista De Fomento Social*, (289), 43-63.
<https://doi.org/10.32418/rfs.2018.289.1434>
- Sanchez, E. & Teixido, J. (2016). Bullying y Género. Prevención desde la Organización Escolar. *Multidisciplinary Journal of Educational Research*. 6. 176.
<https://doi.org/10.17583/remie.2016.2108>
- Sancho Longas, E., & Pulido Rodríguez, C. (2016). El club de valientes de la comunidad de aprendizaje CPI Sansomendi PI. *Padres Y Maestros / Journal of Parents and Teachers*, (367), 38-41.
<https://doi.org/10.14422/pym.i367.y2016.007>
- Shonkoff, J. P., Garner, A. S., Siegel, B. S., Dobbins, M. I., Earls, M. F., Mcguinn, L., Pascoe, J., & Wood, D. L. (2012) “The Lifelong Effects of Early Childhood Adversity and Toxic Stress”: *Pediatrics*, 129 (1), 232–246.
<https://doi.org/10.1542/peds.2011-2663>
- Telzer, E. H., Fuligni, A. J., Lieberman, M. D., Miernicki, M. E. y Galvas, A. (2015) “The quality of adolescents peer relationships modulates neural sensitivity to risk taking”: *Social Cognitive and Affective Neuroscience*, 10 (3) 389–398.
<https://doi.org/10.1016/j.dcn.2015.08.005>
- Thapa, A., Cohen, J., Guffey, S., & Higgins-D’Alessandro, A. (2013). A review of school climate research. *Review of Educational Research*, 83(3), 357-385.
<https://doi.org/10.3102/0034654313483907>
- Torrego, J. C., & Martınez, C. (2014). Claves para el Desarrollo del Plan de Convivencia en los Centros Educativos desde una Perspectiva Integral. *Qualitative Research in Education*, 3(1), 83-113.
<https://doi.org/10.4471/qre.2014.37>
- UNICEF (2014) *Hidden in plain sight: A statistical analysis of violence against children*, Nueva York, UNICEF.

ERANSKINAK

1. Elkarrizketa galderak

Ikas komunitateetan Hezkuntza Jarduera Arrakastatsu ugari egiten dira, haien artean tertulia dialogikoak, talde elkarreragileak eta gatazkak kudeatzeko eredu dialogikoa. Eskola honetan HJA hauek aurrera eramaten dituzue baina duela gutxi sartu duzue azken jardueraren aldaketa metodologiko bat. Ausarten Kluba programa berritzaile bat dela esan genezake, beraz, zuen esperientzia, iritzi eta bizipenei buruz hausnartzera gonbidatu zaituztegu gaur.

1. Esan bezala, Ausarten kluba ikaskuntza dialogikoan eta indarkeria prebenitzeko eredu dialogikoan oinarritzen da, hau da, Ikas komunitateen HJA bat da. Hasteko, noiz eta nola sortu zen Ausarten kluba garatzeko beharra eta proposamena?
2. Eredu dialogikoaren oinarrian komunitatearen partaidetza puntu garrantzitsu bat da, baita ikas komunitateen proiektuan ere. Dena den, biek dute gizarte eraldaketa eta inklusioa helburu. Nola egin zen edo izan zen prozesua? (partaidetza eta formakuntzari dagokionez)
3. Sansomendiko ikastetxean prozesua Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan hasi zuten liburua gazteenen interesekoa izango zelakoan eta apurka beste mailetan ere sistema mantentzen zutenaz ohartu ziren. Nola izan zen hemen? (adin desberdineko ikasleen harrera)
4. Ausarten Klubak ikasle-arteke dinamika ugari aldatzen ditu indarkeria gabeko giro bat lortzeko, esaterako salatari edo kontakatilu deitzen zitzaiona ausarta bihurtzen da. Ikusi al duzue halako rol aldaketarik (helduen, irakasleen, biktimen, erasotzaileen edota lekukoen artean)?
5. Argi dago Ausarten Kluba ez dela ariketa solte edota puntual bat, ikasle-dinamikak erabat aldatzen dituen prozesu konplexu bat baino. Zuen iritzi, zer oztopo eta zer onura izan ditu programa honen inplementazioak? (ikas komunitatean, gatazken maiztasun eta intentsitatean)
6. Eredu dialogikoak elkarbizitza, solidaritatea, elkartasuna, biolentzia edo arazoak murriztea eta kohesio soziala bultzatzen du. Zer bizipen nabarmenduko zenukete Ausarten Klubari buruz?
7. Arestian esan bezala, Ikas komunitateek ikaskuntza dialogikoa dute oinarri eta hainbat HJA eramaten dituzte aurrera. Ikas komunitatea izateak uste duzue eragina izan duela programa hau aplikatzerako garaian?

2. Ikerketan parte hartzeko baimena

Baimena

Ausarten Kluba: Gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko eredu dialogikoa. Bilboko eskola publiko batean kasu-azterketa.

Los datos personales e información recogida en este documento están protegidos bajo la ley Ley Orgánica 15 / 1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

Baimena

Ausarten Kluba: Gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko eredu dialogikoa. Bilboko eskola publiko batean kasu-azterketa.

IKERKETARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

Ikerketaren helburua eskola honetako komunitateko agente desberdinen Ausarte Kluba programaren bizipenak jasotzea da.

Gradu Amaierako Lan honetan, Maite Arrazola Barandiaran ikasleak, Ausarten Kluba programaren eraginkortasuna aztertuko da baita programa hau aplikatzeko lanean ari den komunitatearen pertzepzioa ere.

Lan honen ikerketa-eremua elkarrizketa desberdinen bidez burutuko da.

Jasotako datuak Datuen Babesaren Lege nazionalaren kriteriopean babestuta daude. Zure datuak konfidentzialak dira eta kodifikatuak izango dira zure nortasuna eta pribatutasuna babesteko.

Hurrengo datuak bete zure baimena ematen baduzu ikerketa honetan parte hartzeko.

Baimenak

1. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa BAI EZ

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea

Data

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

2. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa BAI EZ

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea

Data

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

3. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa BAI EZ

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea	Data
--------------------------------	-------------

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

4. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa BAI EZ

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea	Data
--------------------------------	-------------

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

Baimena | [Seleccionar fecha]

5. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa **BAI** **EZ**

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea

Data

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

6. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa **BAI** **EZ**

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea

Data

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

7. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa **BAI** **EZ**

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea

Data

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

8. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa **BAI** **EZ**

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea

Data

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

Baimena | [Seleccionar fecha]

9. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa **BAI** **EZ**

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea

Data

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

10. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa **BAI** **EZ**

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea

Data

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

11. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa **BAI** **EZ**

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea

Data

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

12. Parte-hartzailea

Informazioa irakurri dut eta ikerlariak lanaren helburua azaldu dit, eta ados nago proiektu honetan borondatez, anonimoki eta konfidentzialki parte hartzearekin.

Elkarrizketa grabatzearekin ados nago

- Audio grabazioa **BAI** **EZ**

Anonimotasuna mantentzeko kode identifikazioa.....

Firmak

Firma/ Parte-hartzailea

Data

PARTE-HARTZAILEAREN IZENA

IKERLARI ARDURADUREN IZENA: Maite Arrazola Barandiaran

3. Eranskina

*Datuen babesaren legearen arabera eskolari buruzko informazioa konfidentzial mantentzeko belztuta agertzen dira zati batzuk

TRATU ONEN DEKALOGOIA

1. [Redacted] jokabide onak bakarrik onartzen ditugu.
Biolentziari EZ esaten diogu: EZ egin, EZ esan zuretzat nahi ez duzunik!
2. Maite nauenak ondo tratatzen nau beti: "Zaindu eta zainduko zaitugu!".
3. Libre naiz erabakiak neure kabuz hartzeko eta gai naiz haien zergatiak azaltzeko.
4. EZ da EZ: Errespetatu nazazu!
5. Libre eta ausartak gara gure sentimenduak edozein espazio (klasean, asanbladetan, patioan, jantokian) edo momentutan adierazteko, hainbat modu erabiliz:
 - ikaskideekin edo helduekin aurrez aurre hitz eginez.
 - postontzia edo posta elektronikoa erabiliz.
6. Haserre bazaude:
 - 1. Lasaitu
 - 2. Pentsatu
 - 3. Errespetuz konpondu, hitz aproposak erabiliz.
7. Badakit neure burua ondo defendatzen:
 - "Kortina magikoa" erabiltzen.
 - "Ez zait gustatzen" esanez.
 - "Nirekin hitz egin, jotzeari utzi" esanez.Irakasleari edo lagunei laguntza eskatuz.
8. Ez lotsatu laguntza eskatzen.
9. Norbaitek laguntza behar badu, besteen aurrean defendatuko dut (lagunen ezkutua egiten, adibidez).
10. Norbait sufritzen ari bada, ez geratu isilik, lagundu. Esan eta izan AUSARTA.

AUSARTEN KLUBA